



BEHE BIDASOAKO hitza

Asteartea
2010-03-09

II.URTEA 209.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.BEHIBIDASOAKOHITZA.INFO

Greba egin dute gaur Irungo eta Hondarribiko eskola publikoetako jangeletan

Hezkuntza » Jaurlaritzak azpikontratatu dauka jangeletako zerbitzua, eta baldintza hobek eskatzen dituzte langileek



Txingudi Ikastolako jantokia gaur, grebaren eraginez itxita. ASIER PEREZ-KARKAMO

ERREDAKZIOA

Astean bitan lanuzteak egiteko dinamikarekin segituz, grebara deituta zeuden gaur Araba, Bizkai eta Gipuzkoako kudeaketa zuzeneko eskoleta jangeletako langileak. LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek egin dute deialdia, eta 55.000 umeri eragiten die. Urtebete baino gehiago igaro da kudeaketa zuzeneko jangeletan gatazka hasi zenetik. Geroztik, sektoreko 3.500 langileek bederatzi greba egin dituzte, eta, sindikatuen arabera, deialdiek erantzun handia izan dute. Sindikatuen arabera, greba egunen ostean ez dute negoziatzeko «inolako eskaintzarik» jaso. Lan itunik gabe abiurte daromatela gogoratu dute.

Sindikatu etako ordezkariak barkamena eskatu nahi izan diete grebek kalte egingo dieten gurasoei, baina ez dutela beste konponbiderik aurkitu argitu dute: «Greba da Eusko Jaurlaritzak eta enpresen utzi diguten aukera bakarra». Izan ere, salatu dutenez, bai enpresen bai Eusko Jaurlaritzak ez di-

tuzte langileen aldarrikapenak aintzat hartu. Bost eskaera nagusi egin dituzte: jangeletako zaindaria bakoitzak haur gutxiago izatea bere zaintzapean; formazio ikastaroak egitea; txostenak egiteko, lanordua luzatzea, eta soldata Eusko Jaurlaritzako langileenarekin parekatzea.

Eremu babestuen desmartxarako bilera irekita deitu dute Varietesen

Hendaia » Martxoaren 18an Frantziako Eraikinak erakundeko arkitektoa gonbidatu dute antzokirat, herritarren zalantzak argitze aldera

Herriko Etxeak. Eta horretan herritarren parte-hartzea indartu nahi du. Hala, heldu den martxoaren 18an herritarrei irekitako bilera antolatu dute Varietes antzokian, 18:30erako.

Bilkura horretan Hendaiaiko auzapeza, Jean-Baptiste Salaberri, eta Frantziako Eraikinak erakundearen arkitektoa eta Hiriko Arkitektura eta Paisaia Ondarea Babesteko Eremuaren lantzeaz arduratzen den ikerketa bulegoko ordezkariak egonen dira.

«Hendaiarrek gai horri buruz dituzten zalantzak argitzeko nahi bezainbertze galdera egin ahal izanen dituzte», iragarri du Salaberri. Proiektuaren desmartxa horren nondik norakoak eta ikerke-

taren egoera aurkeztuko dituzte. «Herritarrek proiektuaz zertan den jakitea ezinbertzekoa» delakoan da auzapeza. Hortaz, bilkuran parte-hartzerat animatu ditu.



Abbadia eremua. A.P.K.

KOLDONAUSIA

Hendaiaiko Herriko Etxeak Hiriko Arkitektura eta Paisaia Ondarea Babesteko Eremua plantan ezartzeko bilkura informatiboa antolatu du. Hirigintza Plan Orokorren (PLU) berrikusketaren irizpideei lotuta, berdeguneak eta balio historiko-arkitektonikoa duten eraikin zaharrak babesteko politika iraunkorra bultzatu nahi du

A Agenda

» MARTXOAK 9, ASTEARTEA

Bestelakoak

- **Hendaia.** *Otto*, Elirale konpainiaren ttipientzako ikuskizuna, euskaraz. Egun osoz, Mediatekako haurtzaroaren etxean.
- **Hondarribia.** Maite Franco ipuin kontalaria, 19:30ean, Emeki elkartean.

Ikusentzunezkoak

- **Irún.** *Opera de cine: La Finta Giardiniera*-ren proiektzioa, 19:00etan Amaia KZn.
- **Irún.** *Mujeres en construcción* filmaren proiektzioa eta solasaldia, 19:00etan Amaia KZn.

Tailerrak

- **Hendaia.** *Adierazpen bizia*, 19:00etan, Hondartzako 1. mailako eskolan.

» MARTXOAK 10, ASTEAZKENA

Bestelakoak

- **Hendaia.** Sute eta Sokorri Zentro berriarabisa gidatua, euskaraz. 14:00etan, Intzurako (Les Joncaux) industriagunean.

Haurrak

- **Hendaia.** *Le mercredi des petits lus*, haurrentzako irakurketak, 16:00etan.
- **Irún.** Haurrentzako ipuin kontalaria: Untxi belarriak, Lupe Lekuonarekin. 17:30ean, Ikust-Alaian.

Hitzaldiak

- **Hendaia.** *Apaiac Hobeto*, XVI. mendean Ternuara joan ziren arrantzaleen gaineko mintzaldi-proiektzioa. 18:15ean, Nekatoenean (frantsesez).
- **Irún.** *Pioneras en la sombra*, Rosa Gomezen liburuaren aurkezpena, 17:00 Argoiak elkartean.
- **Hondarribia.** Eusko Alkartasunako Gipuzkoako Lurralde Koordinadore Iñaki Agirrezabalagaren hitzaldia, 19:30ean, San Pedro kaleko Alkartetxean.

Musika

- **Irún.** *Jam sessions*, estilo guziei irekia. Asteazkeno, 20:00etan, Tunk aretoan. Izena emateko: jamtunk@hotmail.com.

F Farmaziak

» MARTXOAK 9, ASTEARTEA

- **Hondarribia.** Almajano. Mendelu, 26.
- **Irún.** Agra. Migel Anbulodi, 5. Gaez: Olazabal. Berroeta, 3.
- **Hendaia.** 017 telefonora deitu.

» MARTXOAK 10, ASTEAZKENA

- **Hondarribia.** Lizarraga. Harresilanda kalea, 1.
- **Irún.** Etxebeste. Luis Mariano, 2. Gaez: Olazabal. Berroeta, 3.



sarrerak

HITZAK 2 harpidedunentzat
bina sarrera ditu

**HONDARRIBIA-IRUN
PALACIO DE CONGRESOS IBIZA**



Emakumezkoen Liga
HONDARTZA kiroldegia
Martxoak 13, larunbata. 19:00

sarrerak eskuratzeko goizez deitu:

(0034) 943-10 15 82

Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunaren izena martxoaren 12ko papereko edizioan.

harpidedunen
TXOKOA hitza